

SEGURA / Udal liburutegian Dan Brown-en liburuak izan dira irakurrienak aurreko urtean

SEGURA. DV. Dan Brown idazle amerikarraren eleberriak izan dira gehien irakurri direnak 2006an Segurako udal liburutegian. Celes Goitia bibliotekako arduradunak bildu dituen datuen arabera, gaztelaniazko liburuak euskarazkoak baino dexente gehiago eskatzen dira eta idazle guztien artean El código Da Vinci liburuarekin famatu egin zen Dan Brown nabarmentzen da. Bere hiru eleberri, Ángeles y demonios, La conspiración eta La fortaleza digital, izan dira 2006an irakurleek gehien eskatu dituztenak, 10, 9 eta 8 aldiz hain zuzen. Jane Green-en Los patitos feos también besan. Ildenfonso Falcones-en La catedral del mar eta Toti Martínez de Lezearen A la sombra del templo ere 9 eta 8 alditan eskuratu dituzte bazkideek.

Euskaraz irakurtzen diren liburuak gutxiago dira eta Manuel Lasarteren Lazkao Txiki gogoan eta Begoña Bilbaoren Palestina zure mina izan dira irakurrienak, hiru alditan bakoitza.

Haurrei dagokienez, bi liburuk, El maravilloso mundo de los animales eta Ireki ohiana: zatoz oihanera, animaliak ezagutzera, eduki dute arrakastarik handiena, 15 eta 11 alditan eskatu direlarik.

Liburutegira joateko ohitura duten herritarrei erreparatuta, guztira 350 bazkide ditu egun bibliotekak. Horietatik 220 helduak dira, 130 emakume eta 90 gizonezko, eta 130 haurrak, 66 neska eta 64 mutil. Erabiltzaileei dagokienez, jende gehiena urrian (224 haur eta 111 heldu) eta azaroan (226 haur eta 129 heldu) zenbatu da.